

### Zer dira Ondarearen Europako Jardunaldiak?

Ondarearen Europako Jardunaldiak herritarrek parte hartzeko atea irekitzeko proiektua da, eta 1991tik antolatzen dira, Europako Kontseiluaren ekimenez, Europar Batasunarekin lankidetzan.

OEJren helburu da ondare komuna sustatzea, ezagutza partekatzea eta herritarrek sentsibilizatzea gure kultura anitzen ondare materiala eta immateriala babesteko eta zaintzeko beharri buruz.

### Noiz egiten dira?

Ondarearen Europako Jardunaldiak urrian zehar egiten dira.

### Nork har dezake parte Ondarearen Europako Jardunaldietan?

Batzuetan erakundeek antolatutako programa dela uste bada ere, ez da horrela. Jardunaldiak era guztietako eragileek antola ditzakete, bai publikoek (kontzejak, udalak eta kulturako erakunde ofizialak), bai sozialek (elkartek, fundazioak, kolektiboak...), bai partikularrek ere.

Arabako Foru Aldundiko koordinazio taldeak proposamena gauzatzeko aholkularitza ematen du, programaren katalogoa egiten du eta komunikazio eta hedapen ekintzak garatzen ditu.

### Zein da 2021eko jardunaldien ardatz gidaria?

Gai nagusia da **Ondare irisgarria eta inklusiboa**. Horretan oinarrituta, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko hiru lurralde historikoek **Guztion ondarea, denok parte** lelo bateratua sortu dugu.

Gai eta lelo horien bidez, Arabako Ondarearen Europako Jardunaldien sareko kide diren pertsona, erakunde eta instituzio guztiak gonbidatzen ditugu elkarriketarako eta ekintzarako esparrua zabaltzera eta askotariko audientziekin konektatzera, topaketak eta prozesuak sustatuz kultur ondarearen aurkezpenarekin eta interpretazioan tradizioz gutxietsita eta ahaztuta egon diren taldeekin elkarrengaitzeko.

Horretarako, espazio eta giro inklusiboak sortzeko gonbita luzatzen dugu, non landuko baitira ondarearen bidezko desberdintasunen errespetua, ekitatea eta aintzatespen positiboa. Hau da, elkarriketarako eta ikaskuntzarako aukerak sortzea, partaidetza prozesuen eta ekintzen bidez, ezagutza gehiago trukatzeko eta ondarea eta kultura aurrekariak hobeto ulertzen lagun dezaten.

### Helburuak:

1. Tokiko ondarearen eskuragarritasuna eta interpretazioa sustatzea, parte hartze aktiboa eta inklusiboa oinarri hartuta.
2. Sentsibilizatzea eta balioestea gure komunitateko kultura aniztasuna.
3. Gure gizartean bat egiten duten kolektiboak ikusaraztea. Kultura elkarlanarekin lotzea.
4. Kultura garapenaren dimentsio inklusiboan jomuga jartzen duten ekimenak eta proiektuak ikusgarriago egitea.

### Parte hartu nahi?

Nahiko genuke Ondareari buruzko Europako Jardunaldien proiektuarekin bat egin dezazun, horretarako diseinatutako jardueraren batekin.

Jarduera horiek honako hauek izan daitezke: bisita gidatuak, erakusketak, hitzaldiak, ikus-entzunezko materiala, dialektoak berreskuratzeko proiektu bat (galtzen ari garen hitzak, ofizio bati, jolas zehatz bati... dagozkien hitzak), antzerki jarduera bat hirugarren adineko zure egoitzan, lantegi bat, solasaldiak, eztabaidak, ipuin-kontaktak...

Jarduerak doakoa izan behar du erabiltzaileentzat, jardunaldien helburua denentzat izatea baita, pertsona bakoitzaren baliabide ekonomikoak edozein izanda ere.

Zure herriko zein istorio ez dira inoiz kontatu? Zure inguruko zein komunitate edo talde ez da inoiz ikusarazi zure museoan edo zure erakusketan aretoan?

Erabakita daukazunean, jakinaraz diezaguzu, zurekin batera lan egin dezagun.

### Egutegia.

1. Proposamenaren lehen zirriborroa aurkeztea: ekainaren 25a.
  - a. Jardunaldietan parte hartuko den berrespena.
  - b. Jardueraren-proiektuaren proposamena.
2. Behin betiko proposamena aurkeztea: uztailaren 2a.
  - a. Jarduera-proiektua zehaztea.
  - b. Katalogoa egiteko testua eta irudiak entregatzea.
3. Hedabideei aurkeztea: irailaren erdialdean.
4. Kanpaina noiz egingo den: urrian zehar.

### Kontaktua.

serviciomuseosyarqueologia@araba.eus

**ANIMA ZAITEZ ETA PARTE HARTU!**



**serviciomuseosyarqueologia@araba.eus • 945 10 10 70**

### I. eranskina. Zer da inklusioa?

Inklusioa pertsonen aniztasunari eta banakoen arteko desberdintasunei modu positiboan erantzuten dien ikuspegia da, ulertuta aniztasuna ez dela arazo bat, gizartea aberasteko aukera bat baizik, familia bizitzan, hezkuntzan, lanean eta, oro har, prozesu sozial, kultural eta komunitate guztietan aktiboki parte hartuz (Unesco, 2005).

Kontuan hartu beharreko lehen alderdia, eta agian errazen hautematen dena, kultura gizarteratzeko bide gisa erabiltzea da. Horrekin, jarduera kulturalak ezartzeaz ari gara, sektore ahulenak lan artistikoetan eta ekoizpen estetiko eta praktika artistikoko lanbideetan sartzen saiatzeko.

### II. eranskina. Kultura praktika eskuragarrien eta inklusiboan gidak

"Kultura inklusiboaren bidean. Guztientzako museoak", K6 eta Elkartu (Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea)  
[https://elkartu.org/pdf/kultura-inklusiobaren-bidean\\_hacia-una-cultura-inclusiva.pdf](https://elkartu.org/pdf/kultura-inklusiobaren-bidean_hacia-una-cultura-inclusiva.pdf)

"Kultur ekimen irisgarri eta inklusiboak diseinatzeko eta antolatzeko gidaliburua".  
Elkartu (Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea)  
[https://elkartu.org/pdf/guia\\_eventos\\_accesibles\\_inclusivos\\_online\\_16-12-2016.pdf](https://elkartu.org/pdf/guia_eventos_accesibles_inclusivos_online_16-12-2016.pdf)

### ¿Qué son las Jornadas Europeas de Patrimonio?

Las Jornadas Europeas del Patrimonio son un proyecto de puertas abiertas a la participación ciudadana, organizadas desde 1991 por iniciativa del Consejo de Europa en colaboración con la Unión Europea.

Las JEP buscan promocionar el patrimonio común, compartir conocimiento y sensibilizar a la ciudadanía sobre la necesidad de proteger y preservar el patrimonio material e inmaterial de nuestras diversas culturas.

### ¿Cuándo se celebran?

Las Jornadas Europeas de Patrimonio se desarrollan durante el mes de octubre.

### ¿Quién puede tomar parte en las Jornadas Europeas de Patrimonio?

Pese a que en ocasiones se crea que es un programa organizado por instituciones no es así. Las Jornadas están abiertas a la organización de actividades por parte de todo tipo de agentes, ya sean públicos (Concejos, ayuntamientos e instituciones culturales oficiales...) o sociales (asociaciones, fundaciones, colectivos...) e incluso particulares.

El equipo coordinador de la Diputación Foral de Álava facilita el asesoramiento para llevar a cabo la propuesta, realiza el catálogo del programa y desarrolla acciones de comunicación y difusión.

### ¿Cuál es el eje conductor de las jornadas de 2021?

El tema marco es el **Patrimonio accesible e inclusivo**. En base a él, los tres Territorios Históricos de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya hemos creado el lema común **Guztion ondarea, denok parte**.

A través de este tema y lema invitamos a todas las personas, entidades e instituciones a que forman parte de la red de las Jornadas Europeas de Patrimonio en Álava a ampliar el marco de diálogo y acción y conectar con audiencias más diversas, promoviendo encuentros y procesos para interactuar con los grupos que tradicionalmente han sido subrepresentados y olvidados en la presentación y la interpretación del patrimonio cultural.

Para ello, lanzamos una invitación a crear espacios y ambientes inclusivos en los que se cultiven el respeto, la equidad y el reconocimiento positivo de las diferencias a través del patrimonio. Esto es, generar oportunidades para el diálogo y el aprendizaje a través de procesos participativos y acciones que contribuyan a un intercambio más amplio de conocimientos y a un mejor entendimiento del patrimonio y los antecedentes culturales.

### Objetivos:

1. Promover el acceso y la interpretación del patrimonio local desde la participación activa e inclusiva.
2. Sensibilizar y poner en valor la diversidad cultural de nuestra comunidad.
3. Visibilizar a los distintos colectivos que convergen en nuestra sociedad. Vincular la cultura con el trabajo en común.
4. Hacer más visibles las iniciativas y proyectos que ponen el punto de mira en la dimensión inclusiva del desarrollo cultural.

### ¿Participas?

Nos gustaría que te sumases al proyecto de Jornadas Europeas de Patrimonio con alguna actividad diseñada para las mismas.

Estas actividades pueden ser visitas guiadas, exposiciones, conferencias, material audiovisual, un proyecto de recuperación de dialectos (palabras cuyo uso estamos perdiendo, voces propias de un oficio, de un juego...), una actividad de teatro en tu residencia de tercera edad, un taller, tertulias, debates, cuentacuentos...

La actividad ha de ser gratuita para las personas usuarias ya que las jornadas pretenden que el acceso sea universal, independientemente de los recursos económicos de cada persona.

¿Qué historias de tu localidad no se han contado nunca? ¿Qué comunidad o grupo de tu entorno nunca se ha visto visibilizado en tu museo o en tu sala de exposiciones?

Una vez lo tengas decidido comunícanoslo para que podamos colaborar contigo.

### Calendario.

1. Presentación primer borrador de propuesta: 25 de junio.
  - a. Confirmación de participación en las Jornadas.
  - b. Propuesta del proyecto-actividad.
2. Presentación propuesta definitiva: 2 de julio.
  - a. Concreción del proyecto-actividad.
  - b. Entrega del texto e imágenes para la realización del catálogo.
3. Presentación a los medios: mediados de septiembre
4. Celebración de la campaña: todo el mes de octubre.

**¡ANÍMATE Y PARTICIPA!**



**serviciomuseosyarqueologia@araba.eus • 945 10 10 70**

### Anexo I. ¿Qué es inclusión?

La Inclusión es un enfoque que responde positivamente a la diversidad de las personas y a las diferencias individuales, entendiendo que la diversidad no es un problema, sino una oportunidad para el enriquecimiento de la sociedad, a través de la activa participación en la vida familiar, en la educación, en el trabajo y en general en todos los procesos sociales, culturales y en las comunidades (Unesco, 2005)

Un primer aspecto a tenerse en cuenta y quizá el más fácilmente percibido es el de usar la cultura como un vehículo de inclusión social. Con esto nos referimos a la implementación de actividades culturales para tratar de incorporar a los sectores más vulnerables en trabajos artísticos y ocupaciones de producción estética y práctica artística.

### Anexo II. Guías de prácticas culturales accesibles e inclusivas

"Hacia una cultura inclusiva. Museos para todas y todos", K6 y Elkartu  
(Federación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de Gipuzkoa)  
[https://elkartu.org/pdf/kultura-inklusiboaren-bidean\\_hacia-una-cultura-inclusiva.pdf](https://elkartu.org/pdf/kultura-inklusiboaren-bidean_hacia-una-cultura-inclusiva.pdf)

Guía para diseñar y organizar eventos culturales accesibles e inclusivos.  
Elkartu (Federación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de Gipuzkoa)  
[https://elkartu.org/pdf/guia\\_eventos\\_accesibles\\_inclusivos\\_online\\_16-12-2016.pdf](https://elkartu.org/pdf/guia_eventos_accesibles_inclusivos_online_16-12-2016.pdf)